



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO URRIAREN 9AN
GOIZEKO 10:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- KALE NAGUSIA 21 ETXEKO JABEKIDEEN IZENEAN DIHARDUEN ANA TELLO AROSTEGI ANDREARI, KALE NAGUSIA 21 ETXEAN ERABERRITUTAKO TEILATUAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2013-0372

Kale nagusia 21 etxeke jabekideen izenean diharduen Ana Tello Arostegi andereak aurkeztutako eskaera aztertu dut. bertan, Kale Nagusia 21 etxean eraberritutako teiltuaren lehen erabilera udal baimena eskatzen du.

Tokiko gobernu batzarrak, 2013ko urriaren 29an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: kale nagusia 21 etxeke jabekideen izenean diharduen ana tello arostegi andereari, kale nagusia 21 etxeke teiltua eraberritzeko udal baimena ematea.

Orain berriz, obrak amaitu eta dagokion dokumentazioa aurkeztearekin batera eraberritutako teiltuaren lehen erabilera baimena eskatu du. udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean, 2014ko urriaren 3an ondoko txostena eman du:

EE2014_04_056

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate andereari

OBRA NAGUSIAK

**KALE NAGUSIA 21 ETXEKO TEILATUA ERABERRITZEKO LEHEN
ERABILERA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Kale Nagusia 21, Usurbil
ESKATZAILEA; Ana Tello Arostegi, Kalea Nagusia 21eko jabekideen izenean.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2013-0372
OBRA AMAIERAKO PEM: 38.522,80 €



Usurbilgo Udala



AURREKARIAK

(ikus EE2014_04_53)

- 2014ko irailaren 16an udal arkitektoak txostena idatzi zuen, honako baldintzak ezarriz:
 - **“OBREN AMAIERA ETA ZUINKETA AKTA: Ez da orainartean ZUINKETA AKTARIK izenpetu; teilatuaren haserako altuera eta obra amaierakoa emandako baimenera egokitzen direla egiaztatzen duenik. Interesatuak ere ez du eskatu. Ezinbestean egin beharko da eta baimendutakoa bete beharko du.**
 - **FALTA DE DOKUMENTAZIOA:** Egituraren inguruan aurkeztu den idatzia izenpetu gabe dator eta bestetik, ez da egitura berriaren EKT justifikazio osatua aurkeztu. Aurkeztu beharko da.”
- 2014ko irailaren 25ean udal aparejadoreak zuinketa akta izenpetu du.
- 2014ko urrian interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

TXOSTENA

Ana Tello andereak Kale Nagusia 21eko teilatua eraberritzearen obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du, lehen erabilera baimena eskatuz. Aurkeztu dokumentazioa da; egituraren EKT justifikazioa.

Betebeharreko baldintzen inguruan honakoa esan daiteke:

- **ZUINKETA AKTA:** Udal aparejadoreak egindako zuinketaren arabera, teilatua 35 cm altua da, baimenak 30 cm onartzen zuelarik. Hau ontzat har liteke, Udalak hala erizten badu.
- **FALTA DE DOKUMENTAZIOA:** Egituraren justifikazioa aurkeztu da.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoaren baitan lehen erabilera baimena eman liteke.

Haxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbil, 2014ko urriaren 3an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Eiguren Azkune

Hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A



Usurbilgo Udala



LEHENDABIZI: KALE NAGUSIA 21 ETXEKO JABEKIDEEN izenean diharduen ANA TELLO AROSTEGI andereari, Kale Nagusia 21 etxean eraberritutako teilatuaren lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

2.- ANA TELLO AROSTEGI ANDREARI, KALE NAGUSIA 21 ETXEKO ESTALKI-BEHEAN ERABERRITUTAKO ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2013-0373

ANA TELLO AROSTEGI andereak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Kale Nagusia 21 etxeke estalki-behean eraberritutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko urriaren 29an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: ANA TELLO AROSTEGI andereari, Kale Nagusia 21 etxeke estalki-beheko etxebizitza eraberritzeko udal baimena ematea.

Orain berriz, obrak amaitu eta dagokion dokumentazioa aurkeztearekin batera eraberritutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatu du. Udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean, 2014ko urriaren 23an ondoko txostena eman du:

EE2014_04_055
BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andereari
OBRA NAGUSIAK
KALE NAGUSIA 21 ETXEKO ESTALKI-BEHEKO ETXEBIZITZA
ERABERRITZEAREN OBRA AMAIERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Kale Nagusia 21, Usurbil
ESKATZAILEA; Ana Tello Arostegi
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2013-0373
OBRA AMAIERAKO PEM: 35.421,78 €

AURREKARIAK

(ikus EE2014_04_054 txostenean)

- 2014ko irailaren 16an udal arkitektoak txostena idatzi zuen honako baldintzekin:
 - a. **“ZUINKETA:** Udal aparejadoreak zuinketa egin du estalkipeko oinetik eta bertan hartutako neurriak ez datoz bat proiektuan baimendutakoarekin. Justifikazio aurkeztu da, non azaltzen den jatorrizko egoeran forjatu gainean betelana (“recrecido”) egina zegoela eta horregatik, etxebizitzaren sarreran eskaila-maila zegoela, oraingo egoeran betelana kendu dutenez desagertu dena eta ondorioz altuera gehitu. Esan beharra dago, aurkeztu zen proiektuan ez dela inongo eskaila mailarik jaso etxebizitzaren sarreran eta bestetik, azaltzen den guzti hau jasotzen duen argazkirik edota frogarik ere ez da aurkeztu. Altuera handitzearekin elkarlotuta, teilatuaren



Usurbilgo Udala



altxatze zuinketa kanpotik egitear dago. Edonola, **30 cm baino gehiagoko handitzea ez du emandako baimenak ahalbidetu eta beraz, justifikatzen dena ziurtatzen duten frogak aurkeztu behar lirateke.**

- b. **FALTA DEN DOKUMENTAZIOA:** Obra baimenaren baldintzetan bizigarritasun baldintzak betetzea eta justifikazioa aurkeztu zen, obra proiektuan aurkeztu ez zelako. Oraindik ez da aurkeztu. Berrito ere eskatzen da aurkeztea:
 - c. **"BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA:** *Usurbilgo Hiriguneko Plan Bereziak 54. artikuluan ezartzen dituen bizigarritasun baldintzen justifikazioa aurkeztu beharko da. Aireztapen eta argiztapenerako sabaileiho gehiagorik beharko balitz, ireki beharko dira. Aurkeztu beharko da etxebizitzaren oina sabaileihoak gainjarrita espazio bakoitzean."*
 - d. **GALDARA:** Instalatzailearen ziurtagiria aurkeztu da.
 - e. **SUKALDEA:** Egikaritu den sukaldeak baimendutako proiektuarekiko aldaketak barneratu ditu. EKT betetzen duela justifikazioa aurkeztu beharko da (bereziki aireztapena/ke hustuketa-ri dagokionean)."
- 2014ko irailaren 24an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

TXOSTENA

Ana Tello andereak Kale Nagusia 21eko estalki beheko etxebizitza eraberritzearen lehen erabilera baimena eskatu du dokumentazio gehigarria aurkeztuz. Aurkeztu dokumentazioa da: eskaera orria eta memoria.

- **ZUINKETA:** HZ04/2013-0372 espedientearen baitan kanpoaldeko zuinketa egin da eta ikusi da teilatua baimendu baino 5 cm gehiago igo dela (35 cm). Ontzat har liteke Udalak nahi izanez gero.
- **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA:** Bizigarritasun baldintzen betetzea, galdararen dokumentuak eta sukaldearen justifikazioa aurkeztu dira. Ez dago eragozpenik.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoaren baitan lehen erabilera baimena eman liteke.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbil, 2014ko urriaren 3AN

UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ANA TELLO AROSTEGI andereari, Kale Nagusia 21 etxeko estalki-behean eraberritutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.



Usurbilgo Udala



Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:40ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.